



## **DEIALDIA, IRUÑEKO UDALZAINGOKO AGENTE LEHENEKO 7 LANPOSTU BETETZEKO KATEGORIAZ IGOTZEKO LEHIAKETA BIDEZ**

2020ko uztailaren 20an, Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak deialdia onartzea erabaki zuen hurrengoaren arabera:

### **OINARRIAK**

#### **1. oinarria. – Arau orokorrak.**

**1.1.** Deialdi honen xedea da Iruñeko Udaltzaingoko Agente leheneko 7 lanpostu —funtzionario araubidekoak eta C mailakoak— betetzea, kategoriaz igotzeko lehiaketaren bidez.

Lanpostu horiek izanen dira etorkizunean lehiaketako eta berariazko lehiaketako prozeduren bidez Udaltzaingoko Agente leheneko lanpostuak betetzeko eginen den lekualdatze-lehiaketaren ondorioz hutsik geratzen direnak, eta honako txanda hauetan banatuko dira:

**a)** Barne-igoerako 5 lanpostu, Iruñeko Udaleko Udaltzaingoko kideentzat.

**b)** Igoera-txandako 2 lanpostu, ezarritako betekizunak betetzen dituzten Nafarroako Polizia Kidego guztiei irekiak.

Barne-igoerako txandan probak gainditzen dituzten izangaien kopurua lanpostu hutsen kopurua baino handiagoa baldin bada, txanda horretako probak gainditu eta lanposturik gabe gelditu direnek aukera izanen dute igoera-txandako lanpostuetarako lehiatzeko, betiere txanda horretako izangaiekin lehia garbiaren ondoren lortutako puntuazioari jarraikiz.

Barne-igoerako txandan betetzen ez diren lanpostu hutsak betegabetzat joko dira, behin gehituta —hala badagokio— txanda irekian bete gabe geratutakoak.

**1.2.** Deialdi honen ondorioz izendatutakoek Iruñeko Udaleko funtzionario eta Udaltzaingoko Agente lehen izaera hartuko dute; Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatu eta bertan alta emanen zaie, araubide horretan aurreikusitako babesaren pean.

Deialdi honetako lanpostuetarako izendatutakoaren artean Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainerako xedapen osagarrietan aipatzen den eskubide pasiboan eta osasun zein gizarte laguntzaren araubidean afiliatuta dauden funtzionarioek aukeratu ahal izanen dute bertan segitzea ala Gizarte Segurantzaren afiliatzea.

**1.3.** Nafarroako Polizia Kidegoetako kide izan eta kategoriaz igotzeko prestakuntza-ikastaroak egin bitartean zerbitzu berezietako egoeran aitortuak izan diren izangaiek egoerak iraun bitartean



jatorrizko lanpostuan aitortuak dituzten ordainsariak osorik jasoko dituzte Administrazio Publiko deitzailearen eskutik.

**1.4.** Lanpostuetarako izendatutako izangaiek Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean eta hori garatzen duten arauetan ezarritako eginkizunak bete, eta eskubideak eta betebeharrak izanen dituzte.

**1.5.** Lanaldiaren araubidea zerbitzuaren beharretara egokituko da.

## **2. oinarria. – Aplikatzekoak diren arauak.**

Prozedura honako arau hauetan xedatutakoaren arabera gauzatuko da: Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea, Nafarroako Polizia Kidegoetako Langileen Erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 718/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua, Iruñeko Udaltzaingoaren antolakuntza eta funtzionamendu Araudia, aplikatzekoak diren gainerako arauak eta deialdi honetako oinarriak.

## **3. oinarria. – Izangaiek bete beharreko baldintzak.**

**3.1.** Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte kategoriaz igotzeko lehiaketa honetan onartuak izateko:

### **3.1.1. Barne-igoerako txanda:**

**a)** Gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea Iruñeko Udaltzaingoaren zerbitzuko udaltzain lanpostua jabetzan hartu zen dataz geroztik.

**b)** Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egotea igoera zein lanpostutik egin nahi eta horretan.

**c)** Batxilergoko, bigarren mailako Lanbide Heziketako edo horien titulu baliokidea edukitzea.

### **3.1.2. Igoerako txanda irekia:**

**a)** Gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea, lanpostuaren jabetzaren datatik, polizia-agente lanetan, Nafarroako Polizia Kidegoetako batean.

**b)** Udaltzainak: Gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea, lanpostuaren jabetzaren datatik, udaltzain lanpostuan, eta egiaztatua izatea Oinarrizko Prestakuntza Ikastaroa gainditu izana, Polizia lanpostuan aritzeko eskatutakoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Nafarroako Segurtasun Eskolak emana.



**c)** Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egotea igoera zein lanpostutik egin nahi eta horretan.

**d)** Batxilergoko, bigarren mailako Lanbide Heziketako edo horien titulu baliokidea edukitzea.

**3.2.** Aurreko betekizunak bi txandetako izangaiek bete beharko dituzte parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean, eta mantendu lanpostua jabetzan hartzen den egunera arte.

#### **4. oinarria. – Eskabideak eta aurkezteko epea.**

**4.1.** Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroakoa Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

**4.2.** Deialdian parte hartzeko eskabideak Iruñeko Udalaren edozein erregistrotan aurkeztu ahalko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

Eskabidea posta-bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, Postetxeko langileek eskabidean data eta zigilua jar ditzaten hura ziurtatu aurretik.

Eskabideak I. eranskinean jasotako ereduari lotuko zaizkio. Eredu hori eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta bulegoetan eta Interneten ([www.pamplona.es](http://www.pamplona.es) webgunean), eta hura argitaratzen duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Eskabidean izan daitezkeen akats materialak zein egitatezkoak edozein unetan zuzentzen ahalko dira, ofizioz hala interesdunak eskatuta.

**4.3.** Eskabideaz gain, barne-igoerako txandako izangaiek (Iruñeko Udaltzaingoko kideak) aurkeztu beharreko agiriak:

**4.3.1.** Udalak ofizioz erantsiko du espedientean interesdunak gutxienez 3 urteko antzintasuna duela lanpostuaren jabetzaren datatik, Iruñeko Udaltzaingoko polizia moduan, egiaztatzen duen agiria, eta interesdunaren administrazio-egoera eta eman dituen eta onartu zaizkion zerbitzuen berri ere emanen du.

**4.3.2.** Deialdi honen II. eranskinean ezarritako baremoaren arabera alegatzen dituzten merezimenduak egiaztatzeko agiriak. Baldin eta izangaiek aurkeztu dituen merezimenduak



Administrazio honen eskutan badaude, hala adierazi beharko da, eta berariaz azaldu zer prozeduratan dauden.

**4.3.3.** 3.1.1.c. oinarrian galdatutako titulazio akademikoa.

**4.4.** Eskabideaz gain, txanda irekiko izangaiek (Nafarroako Polizia Kidegoetako kideak eta udaltzainak) aurkeztu beharreko agiriak:

**4.4.1.** Organo eskudunak emandako egiaztagiria, baieztatzeko interesdunak gutxienez 3 urteko antzintasuna duela, lanpostuaren jabetzaren datatik, Nafarroako Polizia Kidegoetako bateko kide gisa. Egiaztagiri horretan bertan adierazi beharko da, baita ere, interesduna zein egoera administratibotan dagoen.

**4.4.2.** Udaltzainek organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztuko dute, baieztatzeko interesdunak gutxienez 3 urteko antzintasuna duela, lanpostuaren jabetzaren datatik, udaltzain lanpostuan. Egiaztagiri horretan bertan adierazi beharko da, baita ere, interesduna zein egoera administratibotan dagoen.

**4.4.3.** Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emandako egiaztagiria, non ziurtatuko baita interesdunak Polizia lanpostura sartzeko eskatzen den Oinarrizko ikastaroa, erakunde horrek emandakoa, gainditu duela.

Betebehar hori Administrazioak berak egiaztatuko du, ofizioz, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak deialdia egin duen organoaren aurrean egiaztatuta.

**4.4.4.** Izangaiek deialdi honen II. eranskinean ezarritakoaren arabera alegatzen dituen merezimenduak egiaztatzeko agiriak.

**4.4.5.** 3.1.2.d. oinarrian galdatutako titulazio akademikoa.

**4.5.** Izangaiek jatorrizko dokumentuak, fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak aurkeztu beharko dituzte.

## **5. oinarria. – Izangaien onarpena eta erreklamazioak.**

**5.1.** Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsita, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, Giza Baliabideetako zuzendariak kategoriaz igotzeko lehiaketa bete gabe gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du.



**5.2.** Baztertutako izangaiek aukera izanen dute, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hamar egun baliouduneko epean, erreklamazioak aurkezteko edo, hala badagokio, izan daitezkeen akatsak zuzentzeko.

**5.3.** Behin erreklamazioak aurkezteko epea iraganik eta haien gainean ebatzitakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko.

**5.4.** Aurreko ataletan aipatzen diren behin-behineko eta behin betiko zerrendetan honako datu hauek agertuko dira bakarrik: polizia- edo udaltzain-zenbakia, izangaia Nafarroako Poliziako zein Kidegotakoa edo zein toki entitatekoa den, eta zer txandatan aurkezten den.

## **6. oinarria. – Kategoriaz igotzeko lehiaketaren garapena.**

**6.1.** Kategoriaz igotzeko lehiaketa hiru fasetan egingen da. Lehenengo fasea lehiaketa izanen da, bigarrena, proba teoriko-praktikoa, eta azkena, trebakuntza-ikastaroa, oinarri hauetan ezarritakoarekin bat.

Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko emanen den ebazpenean zehaztuko dira kategoriaz igotzeko lehiaketaren parte diren probak egiteko tokia, eguna eta hasiera-ordua. Gainerako probetarako hurrengo iragarkiak argitara emanen dira webgunean eta Iruñeko Udaltzaingoaren lokaletan, gutxienez 48 orduko aurretiazko epearekin.

### **6.2. Lehiaketa-aldia.**

**6.2.1.** Lehiaketa-aldian izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa egingen da — merezimenduek behar bezala egiaztaturik egon behar dute—, eta gehienez ere 82,50 puntu jasoko dira:

- a)** Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak: 35 puntu gehienez ere.
- b)** Polizia-lanarekin loturiko prestakuntza, irakaskuntza eta ikerlanak: 25 puntu gehienez ere.
- c)** Hizkuntzak: euskara, frantsesa, ingelesa edota alemana: 20,00 puntu gehienez ere.
- d)** Eskersariak: 2,5 puntu bitarte.

Aurreko ataletarako alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honen II. eranskinean jasotako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak. Merezimenduak agiri bidez alegatu eta frogatu beharko dira lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta atal bakoitzerako aipatzen den gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.



Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu izangaiek alegatutako merezimenduen gainean.

Aldi honen amaieran, Epaimahaiak behin-behineko puntuazioak argitaratuko ditu Iruñeko Udaleko iragarki-taulan, eta 5 egun naturaleko epea irekiko du, argitaratzen diren egunetik aitzina, izangaiek eskubidez komeni zaiena alegatu dezaten.

Behin Epaimahaiak behin-behineko emaitzen aurrean aurkezturiko erreklamazioak ebatzita, Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrean dagoen Iruñeko Udaleko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean ([www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)) argitaratuko ditu merezimenduen baremazioaren behin betiko emaitzak.

### **6.3. Proba teoriko-praktikoen fasea.**

**6.3.1.** Proba teoriko-praktikoen fasea honako proba hauek osatuko dute:

a) Lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba teoriko-praktikoak: gehienez ere 150 puntu.

b) Txosten psikoteknikoa: gehienez ere 70 puntu.

Proba guztiak deialdi bakarraren bidez egingen dira. Bazterturik geldituko dira horietako edozein probatara agertzen ez diren izangaiek.

**6.3.2.** 6.3.1. zenbakiaren a) letran zehaztutako proba teoriko-praktikoaren gehieneko puntuazioa 150 puntukoa izanen da, eta test moduko azterketa bat egin beharko da: III. eranskinean jasotako gaitegiari buruzko 100 galderek osatuko dute testa; horietako bakoitzak hiru erantzun posible izanen ditu, eta 1,5 puntu emanen zaizkie erantzun zuzenei, eta 0,5 puntu kenduko da oker erantzundako bakoitzagatik.

Proba hau baztertzaila da, eta kanpoan geratuko dira gutxienez 75 puntu lortzen ez dituztenak.

**6.3.3.** Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuko Sailak, lanpostuaren edukiari eta funtzioei buruzko hautaprobak egin ondoren, proba horiek gainditu dituen izangai bakoitzaren inguruko txosten psikotekniko bat egingen du, eta bertan baloratuko du izangai bakoitza deialdiaren xede den lanpostuaren izaera eta ezaugarrietara egokitzen den.

Aipatu unitateak txosten psikoteknikoan izangaiei emandako puntuazioak Epaimahaia lotetsiko du.

Proba hau ez da baztertzaila izanen eta 0 eta 70 puntu bitarte lortzen ahalko dira.

**6.4.** Behin lehiaketako elementu guztien kalifikazioa amaituta (proba praktikoa eta proba psikoteknikoak), Epaimahaiak Herritarren Segurtasuneko Alorrean dagoen Udalaren iragarki-



taulan eta webgunean ([www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)) argitaratuko ditu izangaiek eskuraturiko puntuazioak, eta 5 eguneko epea emanen du interesdunek balorazio horri buruzko erreklamazioak egin ditzaten eta eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten.

Behin erreklamazioak egiteko epea amaitu eta horiek ebatzi ondoren, Epaimahaiak Herritarren Segurtasuneko Alorrean dagoen Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ([www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)) argitaratuko du izangaien zerrenda osoa, lehiaketaren guztizko puntuazioak adierazita.

Berdinketarik izanez gero, administrazio publikoetako zerbitzuetan antzinasunik handiena dutenen alde joko da, eta, berdinketak jarraituz gero, adinez zaharrena den izangaiari emanen zaio lehentasuna.

## **7. oinarria. – Igoerarako gaitzeko ikastaroa.**

### **7.1. Zerbitzu berezietako egoeran aritzeko adierazpena.**

Iruñeko Udaleko Udaltzaingoko Agente leheneko lanpostura sartzeko ikastaroa —Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emandakoa— egiteko xedez, hautaketa-prozedura gainditu eta bete beharreko plaza-kopuruan lekua duten izangaiek Nafarroako zein administrazio publikoaren mende dauden eta horri zerbitzu berezietako egoera eskatuko diote, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 50.4 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Gaitzeko ikastarorako onarturiko izangaien zerrendan adieraziko da non, zer egunetan eta zer ordutan hasiko den ikastaroa.

### **7.2. Gainditu beharrekoa.**

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako prestakuntza ikastaroa gainditu beharrekoa izanen da. Izangaiek "Gai" edo "Ez Gai" kalifikazioak jasoko dituzte ikastaroa amaitutakoan, eta ezin izanen dira izendatu "Ez Gai" kalifikazioa dutenak.

Gaitzeko ikastaroa Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emanen du, eta Eskolak berak ezartzen duen iraupena izanen du.

Bazter geratuko dira ikastaroa osatzen duten arlo guztiak gainditzen ez dituzten izangaiek.

**7.3.** Behin ikastaroa amaituta, langilea automatikoki itzuliko da zerbitzu berezietako izendapena jaso arte betetzen ari zen plazara, zerbitzu aktiboan.

Zerbitzu berezietako egoeraren aitorpenak ez du batere aldaketarik ekarriko izangaiaren gizarte-aurreikuspeneko araubidean, eta egoera horretan dagoenean jatorrizko lanpostuan zuen araubide berarekin jarraituko du.



Nafarroako Polizia Kidegoetako kideak kategoriaz igotzeko prestakuntza-ikastaroak egin bitartean zerbitzu berezietako egoeran aitortuak izan diren izangaiek, egoerak iraun bitartean jatorrizko lanpostuan aitortuak dituzten ordainsariak osorik jasoko dituzte Administrazio Publiko deitzailearen eskutik.

Izangaiek nor bere Administrazioaren egiaztagiri bat aurkeztu beharko dute, aurreko paragrafoan adierazitakoa egiaztatzeko, eta bertan zehaztuko da kontzeptu horiek direla-eta zenbat jaso zuten gaitzeko ikastaroa hasi aurreko hilabetean.

Aurreko atalak aipatzen duen araubideko ordainsaria jasotzeari automatikoki utziko zaio zerbitzu berezietako egoera amaitutakoan, eta ez du inondik ere ekarriko eskuraturiko eskubiderik, eskubide pasiborik zein deitutako lanpostutik eratorritako inongo eskubiderik.

## **8. oinarria. – Kalifikazio-epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.**

### **8.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:**

Epaimahaiburua: Francisco M<sup>a</sup> Bacaicoa Nuñez jauna, Iruñeko Udaltzaingoko komisarioa.

Ordezkoa: Alfonso Fernández Torres jauna, Iruñeko Udaltzaingoko komisario nagusia.

Epaimahaikidea: Pablo Liberal Artaiz jauna, Iruñeko Udaltzaingoko inspektorea.

Ordezkoa: Jesús Estanga Goñi jauna, Iruñeko Udaltzaingoko komisarioa.

Epaimahaikidea: Félix Echavari Lizasoain jauna, Iruñeko Udaltzaingoko inspektorea.

Ordezkoa: Ángel Azanza Burusco jauna, Iruñeko Udaltzaingoko inspektorea.

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordearen ordezkari-organoen proposatutako ordezkari bat.

Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordearen ordezkari-organoen proposatutako ordezkari bat.

Epaimahaikide-idazkaria: Javier García Martínez jauna, Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorreko legelaria.

Ordezkoa: Víctor Sarasa Astrain jauna, Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorreko legelaria.

**8.2.** Epaimahaia Epaimahaiburuak deituta eratu beharko da, probak hasi baino lehenago.

**8.3.** Epaimahaia ezin izanen da ez eratu, ez jardun gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe, eta, betiere, bertan egon behar dute Epaimahaiburua eta Idazkaria edo horien ordezkari direnak.

**8.4.** Epaimahaiko kideek esku hartzeari uko egin beharko diote, eta hori erakunde deitzaileari jakinarazi, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean horretarako aurrekusiak dauden arrazoiak suertatzen badira.





Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

**8.5.** Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdi honetako oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aipatu aholkulariak zein bere espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan oinarriturik bakarrik emanen diote laguntza Epaimahaiari.

### **9. oinarria. – Gainditu dutenen zerrenda.**

Prestakuntza ikastaroa amaituta, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako zuzendariak prestakuntza-ikastaroan izangaiek lortutako kalifikazioak helaraziko dizkio Giza Baliabideetako zuzendariari, horien izendapena eta lanpostu hutsen esleipena egite aldera.

### **10. oinarria. – Izendapena eta lanpostuaz jabetzea.**

**10.1.** Eskatzen zaizkien agiriak aurkeztu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak Iruñeko Udaltzaingoko funtzionario eta Agente lehen izendatuko ditu kategoriaz igotzeko lehiaketa gainditu duten izangaiek, osotara lorturiko puntuazioaren hurrenkerarekin bat, eta izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

**10.2.** Izendatutako izangaiek izendapenean zehazten den egunean hartu beharko dute lanpostuaren jabetza. Behar bezala justifikaturiko ezinbesteko kausetan salbu, lanpostua jabetzan hartzen ez dutenek kategoriaz igotzeko eskubidea galduko dute.

### **11. oinarria. – Errekurtsoak.**

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtso hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza zein organok egin eta horri zuzendua, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Iruña. – Ana Maria Elizalde Urmeneta, ordezko alkatea.



## I. ERANSKINA

<b>IZEN-ABIZENAK</b>		
<b>NAN / AIZ</b>		<b>JAIOTEGUNA</b>
<b>NAZIONALITATEA</b>		<b>EGUNGO HELBIDEA</b>
<b>POSTA KODEA / HERRIA</b>	<b>TELEFONO MUGIKORRA</b>	<b>TELEFONO FINKOA</b>
<b>HELBIDE ELEKTRONIKOA</b>		

### AZALPENA:

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut, eta adierazten dut:

- Iruñeko Udaltzaingoko kidea naiz.
- Nafarroako honako kidegoko kidea naiz:
- Udaltzain kargua du honako udalerrian:

Honako agiriak aurkezten ditut:

- Eskumena duen organoaren egiaztageria, hala Nafarroako Tokiko Polizia Kidegoetako Polizia lanposturako izendapena eta lanpostuaren jabetzaren data nola lanpostuan duen antzintasuna eta egoera administratiboa ziurtatzen dituen.
- Eskumena duen organoaren egiaztageria, hala udaltzain lanposturako izendapena eta lanpostuaren jabetzaren data nola lanpostuan duen antzintasuna eta egoera administratiboa ziurtatzen dituen.
- Alegatzen eta aparteko orri batean zerrendatzen dituen merezimenduen egiaztageriak.

### ESKAERA:

Eskatzen dut onartua izatea Udaltzaingoko Agente leheneko zazpi lanpostu kategoriaz igotzeko lehiaketa bidez betetzeko deialdian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan (NAO zk.: .....; -data: .....), honako txanda honetan: .....

DATUEN BABESA. Iruñeko Udala da arduradun botere publikoak gauzatzuz egiten diren lan-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduaz. Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa. Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko behar den bitartean kontserbatuko dira, eta biltegitatik dira Udalarai haien erabileratik etor dakioken erantzukizunik eduki bitartean. Halaber, bete behar dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako kontserbazio-arauak. Datuen hartzaileak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: Jakinarazten dizugu eskubidea duzula datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorra (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz (.). Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziari zuzenduta (Jorge Juan k., 6, 28001, Madrid) idazki bat aurkeztuz edo egoitza elektronikoaren bidez ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)) [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)

Iruñean, 20.....ko .....aren ..... (e)an

(Sinadura)



## **II. ERANSKINA**

### **MEREZIMENDUAK BALORATZEKO BAREMOA**

#### **A) Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak: 35 puntu gehienez ere.**

1. Nafarroako Polizia Kidegoetan lanpostu finkoan emandako zerbitzuengatik, urte bakoitzeko: 1,50 puntu, polizia edo agente lanpostuan.
2. Nafarroako Polizia Kidegoetan, deialdiaren xede den lanpostuan, behin-behinean emandako zerbitzuengatik, urte bakoitzeko: 1,65 puntu.
3. Lanpostu finkoan, administrazio publiko baten menpeko beste Segurtasun Kidego eta Indarren batean, emandako zerbitzuak: 1,50 puntu, polizia edo agente lanpostuan.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio.
2. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.
3. Ez dira baloratuko deialdia NAOn argitaratu ondoren emandako zerbitzuak.
4. Funtzionarioek zerbitzu berezien egoeran edo eszedentzia berezian eta unitate organiko baten burutzan emandako aldiak halako egoeretara igaro zirenean zeukaten lanpostuan emandako zerbitzu gisara baloratuko dira.

#### **B) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerlanak: 25 puntu gehienez ere.**

1. Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehienez ere 10 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko prestakuntza-ekintzetan, ikastorduen zatikiak hainbanatuko dira.
2. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.
3. Ikasturte bateko iraupena frogatzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.



4. Puntuazio berarekin baloratuko da erakunde antolatzailearen baldintza bete ez baina Administrazioak aginduta edo haren oniritziarekin eginak diren prestakuntza-saioretan parte hartu izana, halako prestakuntza-saiotzat joko direlarik espresuki sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutakoak.
2. Biltzar edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aurkeztea, beka edo sariren bat jaso duten zientzia- edo ikerketa-lanak egitea eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea: Hiru puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoa, kontuan hartuz lana edo jarduera pertsona bakar batek egin den edo taldekoa, eta biltzarra edo argitalpena zer esparrutakoa den (tokikoa, eskualdekoa, naziokoa edo nazioartekoa).
3. Sektore publikoan prestakuntza saioak antolatzea edota halakoetan irakasle jardutea: Bi puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoa, haien iraupenaren arabera.
4. Titulazio eta espezialitate akademikoak, deialdian eskatu direnez bestekoak. Lau puntu, gehienez ere.
5. Deialdirako eskatutako titulaziotik gorako doktorego edo lizentziagatik: Bi puntu, gehienez ere.
6. Beste merezimendu batzuk, Epaimahaiak baloratzekoak. Besteak beste, sektore pribatuan egindako lanak, prestakuntza bekak edo egonaldiak eta parte hartzea kontsulta-, aholkularitza-, partaidetza- edo ordezkartza-organoetan: Lau puntu, gehienez ere.

Oharrak, B) atal osorako:

1. Atal honetan, deialdi honen xedea diren lanpostuekin zerikusirik duten merezimenduak soilik baloratuko dira. Ez dira baloratuko, inolaz ere, Agente leheneko lanpostua eskuratzeko beharrezkoak diren prestakuntza-ikastaroak.

**C) Ingelesa, frantsesa, alemana eta/edo euskara (20,00 puntu, gehienez ere):**

1. Ingelesa, frantsesa, alemana eta/edo euskara (5 puntu, gehienez ere, bakoitzeko)
  - a. A1 maila: 1 puntu
  - b. A2 maila: 2 puntu
  - c. B1 maila: 3 puntu
  - d. B2 maila: 4 puntu
  - e. C1 maila: 5 puntu

Tituluak eta egiaztagiriak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat baloratuko dira. Maila horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 ebazpenean jasota daude, zeinak ezartzen baititu euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten



titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera (2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa).

Maila gorenari dagokion puntuazioa emanen da. Ez dira inolaz ere batuko hizkuntza bereko bi maila edo gehiagoko puntuazioak.

**D) Eskersariak: 2,50 puntu gehienez ere.**

1. Zerbitzu Goraipagarrien Plakagatik: 1,25 puntu.
2. Zerbitzu Goraipagarrien Dominagatik: 0,75 puntu.
3. Jendaurreko Esker Onagatik: 0,50 puntu.
4. Esker On pribatuagatik: 0,25 puntu.



### **III. ERANSKINA**

#### ***GAI-ZERRENDIA***

1. 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Poliziei buruzkoa.
2. 11/2009 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.
3. 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena.
4. 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Ikuskizun publikoak eta josteta-jarduerak arautzen dituena.
5. 201/2002 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Ikuskizun publiko eta josteta-jardueren ordutegi orokorra arautzen duena.
6. 202/2002 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Establezimendu, ikuskizun publiko eta josteta-jardueren katalogoa onetsi eta enpresa eta lokalen erregistroak arautzen dituena.
7. 33/2011 Foru Dekretua, maiatzaren 2koa, aisiako jardueretan sartzeko eta haietan egoteko baldintzak arautzen dituena eta sarrera kontrolatzen duten langileen gaikuntza-irizpideak eta eginkizunak ezartzen dituena.
8. 4/1997 Lege Organikoa, abuztuaren 4koa, Segurtasun Indar eta Kidegoek bide publikoetan bideokamerak erabiltzea arautzen duena.
9. 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa.
10. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
11. Iruñeko Udaltzaingoaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua.
12. Iruña hiriko Mugikortasunari buruzko Udal Ordenantza.
13. Bide publikoan terrazak eta merkataritzari zein ostalaritzari loturiko bestelako elementuak jartzea arautzen duen Ordenantza.
14. Gizalegezko jokaeren sustapenari eta espazio publikoen babesari buruzko Udal Ordenantza.
15. Aparkatze mugatuko eta murriztuko eremuak arautzen dituen Ordenantza



16. Iruñean animaliak edukitzea arautzen duen Udal Ordenantza.
17. Elikagaien higienari buruzko Ordenantza (onetsia – bategina, 2014ko abuztuaren 14an).
18. Iruñeko udal-mugar-tean maila txikiko aisialdi-lokalen funtzionamendua arautzen duen Udal Ordenantza.
19. 16/2014 Instrukzioa, Estatuko Segurtasun Idazkaritzarena, gorroto-delituen eta diskriminazioari buruzko lege-arauak urratzen dituzten jarreraren aurrean Segurtasun-indar eta -kidegoek jarraitu beharreko jarduketa-protokoloa onesten duena.
20. 03-00-01 prozedura, poliziaren jarduketa-protokoloa, alkoholaren eraginpean gidatzen duten gidariekin aplikatzekoa.
21. 03-00-12 prozedura, trafikoko jarduketa-protokoloa, bide publikoaren okupazioan eta seinaleztapenean.
22. 03-02-01 prozedura, trafiko istripuen protokoloa.